

Gure erakundearen helburu nagusia indarkeria matxista sufritu duten emakumeentzat tailerrak eskaintzea da. Tailerren bitartez, emakume hauek laguntzea dugu helburu. Tailerretako ekintzetaz gozatzeaz gain, berdinen arteko esperientzien trukaketa egitea bilatzen dugu. Egoera berdinean edo antzekoan dauden emakumeek, euren bizipenak modu seguru, erosoan, aldi berean giro erlaxatu eta atseguinean. Horrekin lortu nahi duguna da beraien bizi kalitatea hobetzea eta bizitako esperientziek utzitako ondorioak kudeatzen ikastea.

Terapia bezala erabiltzen ditugun tailerretan zenbait produktu egiten ditugu, adibidez: gailetak, xaboiak, koadroak, etab. Gure helburu nagusia hori ez den arren, produktu horiek saldu egindo ditugu diru-sarrerara extrak lortu ahal izateko eta horrela beste erakunde batzuei laguntza eman ahal izateko.

Gure ustez, arazo hauek konpontzea gure gizartean oso garrantzitsuak eta beharrezkoak dira. Arazo hauek ekiditzea eta sufritzen duten emakumeen arazoak konpontzen laguntzen. Espainan indarkeria matxista sufritu duten emakumeen %45 laguntza psikologikoa behar dute. Eta indarkeria matxista 2023 urtean handitu egin zen %12,5 beste urteekin konparatuta. Egoera geroz eta kezkagarriagoa denez, gure asmoa arazo hori erantzun bat ematea da. Konponbideak bilateral, baina ez oinarritzko terapia sesio arrunten bitartez. Gure kasuan, lanketa guztiak taldean egiten ditugu eta tailerren bitartez.

Gure erakundea espazio seguru eta konfidentzial bat eskaintzeagatik nabarmentzen da, non emakumeek hitz egin eta beren esperientziak partekatu ahal dituzten. Hurbiltasun emozionaleko ingurune honek gurekin harreman sendoa sortzea ahalbidetzen du, konfiantza eta segurtasuna eskainiz.

Horrez gain, tailerren bidezko terapia integrala gure proposamen berritzaile eta eraginkorrenetako bat da. Jarduera hauek ez dute soilik emakumeen burua erlaxatzen laguntzen, baizik eta haien artean bizipenak trukatzeko ere sustatzen dute, ongizate emozional eta soziala ikuspegi holistiko batetik indartuz.

Gure lanaren beste alderdi nabarmen bat emakumeen integrazio ekonomiko eta soziala sustatzeko eskaintzen dugun aukera da. Tailerretan sortutako produktuek adierazpen eta sormen bide bat izateaz gain, emakumeek euren buruarengan konfiantza hartzeko, euren lana baloratzeko eta diru-sarrerak sortzeko aukera ere ematen dute. Hori guztia beste erakundeetaz bereizten gaitu.